



## BEHAKETA-JARDUERA:

### Behatu-galdetu-marraztu

John Muir Laws naturalistak honela dio “Diario Ilustrado de la Naturaleza” liburuan:

*Para practicar me inspiro en el proyecto “Private Eye” de Kerry Ruef, usando las afirmaciones: Me doy cuenta, me pregunto, me recuerda. Si incorporas estas frases en tus exploraciones, no necesitarás ir muy lejos para descubrir algo hermoso o comprender más profundamente cualquier cosa que veas.*

Hori oinarri hartuta, jarduera honetan ikasgelatik atera eta ikasleei ikasten ari diren gaiarekin zerikusia duten gauza ezberdinetan erreparatzeko eskatuko diegu. Beraz, jardueraren helburua inguratzen gaituen errealitatea hobeto ezagutzea da, behaketa eta erregistroa sustatuz; kasu honetan, marrazketaren bidez.

Ikasleak banaka lanean hasi aurretik, komenigarria da lehen saiakera guztiek batera egitea. Horretarako, talde handian inguruko objekturen bat hautatu eta egin lehen behaketa. Aukeratutako objektua edozein izan daiteke, adibidez zuhaitz baten adaxka, edo zuhaitza bera.

Ondoren, saia zaitetz ikasleek hiru esaldi hauek marrazki bidez osa ditzaten:

- **Zertaz ohartu naiz?**

Lehen saiakera denez, ikasleei ikusitakoa ozen adierazteko eskatuko diegu eta, ondoren, hura marrazteko.

Adibidez:

- Ohartu naiz adaxka honek hiru hosto dituela.
- Hosto horietako bi oso berdeak dira; bestea, berriz, horixkagoa da.
- Adaxka oso luzea da, nire besoa baino luzeagoa.



- **Zer galdetu diot neure buruari?**

Kasu honetan, ikasleei adaxkaren inguruan bururatzen zaizkien galderak egiteko eskatuko diegu. Ondoren, galdera hauek idatziz edo marrazki bidez euren koadernoan jasoko dituzte.

**Adibidez:**

- Zenbat urte ote ditu zuhaitz honek?
  - Gehiago haziko da edo jada izan dezakeen tamaina handiena du?
- Galduko ditu hostoak udazkenean?

- **Zer gogorarazten dit?**

Orain, irudimena landuz behatutako objektuak gogora ekartzen dien eedozer aipatu eta, ondoren, marraztu egingo dute.

**Adibidez:**

- Adaxka honek azti edo sorgin baten makilatxo magikoa dirudi.
- Adaxka honek eskolara bidean dagoen karretera luzea dirudi.

Taldeko lana bukatutakoan, bi aukera daude: Denen artean hainbat gai talde handian lantzea, orain bezala; edo, ikasle bakoitzari nahi duen objektua aukeratzeko askatasuna ematea. Aukera izanez gero, hobe azken hori; horrela, ikasle bakoitza interesa duen objektuan zentratuko da eta gogo gehiagoz egingo du lan.

## **GELAKO MATERIALAK**

Eranskinetan aurkituko dituzu jarduera hau egiteko beharrezko dokumentuak.

Marrazkiak edo zirriborroak arkatzez egin ditzakete, baina baten batek kolorea behatu eta erregistratu nahi badu, errotuladore nahiz koloretako arkatzak ere balia ditzake.



## **KONTUAN IZAN**

- **HELBURUA**

Galderen bidez erreferentzia-objektua behatzeko eta ezagutzeko jakin-mina pizteaz gain, informazio ezberdina irudi bidez komunikatzeko gaitasuna landu nahi da, ikasleen alfabetatze bisuala hobetuz, hau da, hizkuntza bisuala idazteko eta irakurtzeko gaitasuna.

Behaketa lantzeaz gain, inguruarekiko ezagutza sustatu eta jakin-mina handitzea lortu nahi da.

- **IKASLEEI ESKATZEN ZAIENA**

Ingurua behatu eta galderen erantzunak marrazki bidez koadernoan biltzea eskatzen zaie. Beraz, ikasleak behatutako objektuei eta emandako erantzunei erreparatuko diegu, ez marrazkiaren kalitateari. Hala, ikasleek lasaitasun osoz behatuko dute ingurua eta irakasleak ikasleen interesguneen inguruan gehiago jakiteko aukera izango du.

